

LUZARO PARTAIDETZAKO MAILEGUAK INBERTSIOEN FINANTZAPENERAKO

MAILEGU-HARTZAILEAREN EZAUGARRIAK (1)	<ul style="list-style-type: none"> - ETE EBren definizioaren arabera. - Izan dadila Fondo Propioen zenbatekoa, gutxienez, eskatzen duen maileguaren adinakoa edo, izaera bereko Luzaroko (partaidetzakoa edota finantzak finkatzekoa) beste mailegu bat edo batzuk duenean edo dituenean, aipaturiko maileguaren/maileguen zenbatekoen batuketaren adinakoa. - Enpresa bideragarria izatea LUZAROREn iritiz. - Kontabilitate-Plan Orokorra bildutako enpresa izatea.
ZENBATEKOA	100.000 eta 1.000.000 Euro artekoa.
EPEA	10 urterarte, inbertsioen arabera (gutxienez 5 urte).
GABEALDIA	5 urterarte.
AMORTIZAZIO AURRERATUA	<ul style="list-style-type: none"> - Kopuruak gutxienez printzipalaren %10eko izan beharko du. - Mailegu-hartzailearen Fondo Propioak pareko kopuruan handitu izan beharko dira. - Mailegu-hartzaileak LUZARORi ordaindu beharko dio (ordaindu ez duen neurrian) une horretara bitartean ordaindu dituen interesen eta igaro den urte bakoitzeko interes osagarri maximoa aplikatu izan balitz ordaindu behar izango zukeenaren arteko aldea.
INTERES-TASA	<p>Proiektua Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) fondoekin finantzatuta badago:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Konturako interesa: 3 hilabeterako Euriborra + %1 (EBS-ren bermearekin Euriborra + %0,75). - Gehienezko interesa: 3 hilabeterako Euriborra + %2,75 (EBS-ren bermearekin Euriborra + %2,25), enpresaren emaitzaren arabera. <p><i>Operazioaren helburuak beste finantza lerroen erabilpena eskatzen badu:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Konturako interesa: 3 hilabeterako Euriborra + %1,25 (EBS-ren bermearekin Euriborra + %0,75). - Gehienezko interesa: 3 hilabeterako Euriborra + %3 (EBS-ren bermearekin Euriborra + %2,5), enpresaren emaitzaren arabera.
IREKIERA KOMISIOA	%0,5a printzipalaren gainean.
MAILEGUAREN HELBURUA	Euskadin egin berri diren edo egiten diren inbertsio berrien %60rainoko finantzaketa . Halaber, aztertu ahal izango dira aktibo ukiezinetan egiten diren inbertsioak edo Euskaditik kanpo egiten direnak, beti ere inbertsio nagusienak lurralde honetan dituzten enpresak finkatzeko eta garatzeko badira. Horretaz gain, bere baitan hartzen ditu hedapenerako eta enpresa nazioartera ateratzeko laguntzak, eta baita ere beste enpresetan partaidetza hartzera bideratuak. Finantzaketa honek ez die beste batzuei aterik ixten, inbertsioaren %80a iritsi arte, beraz, exijitzen da gutxienez, fondo propioen kopurua edo fondo propioen gehikuntza %20koa izatea (diru-laguntzak ez dira FF.PP. gisa kontatzen). (2)
LEHENTASUNA GALDAGARRITASUNEAN ETA ESKATZEN DIREN BERMEAK	<p>Partaidetzako maileguak menpekoak dira. Berme errealak izaera berezikoetan bakarrik hartuko dira, mailegu-hartzaileak erabiltzen duen ibilgetuaren titulartasuna ondare-erakunde batek duenean, edo bazkideenak titulu pertsonalera.</p> <p>Eskaera egiten duenaren egoerak bermeak hartzea aholkatzen duenean, hauek, ahal dela izaera pertsonalekoak izango dira eta ahal den neurrian erantzunkizun mankomunatuak eta akzioetan duen partaidetzaren proportziokoak.</p>
ENPRESAREN ALDETIK NAHITAEZKO ERRESERBA ERATZEA	<p>Onuradunak mozkinak lortzen dituen ekitaldi guztietan, behartuta egongo da mozkin horietatik zati bat, behin legeak erreserbei buruz xedatzen duena bete ondoren, banaezinezko fondo edo erreserba batera bideratzea, halako kopuruan ezen, fondo horrek ekitaldi bakoitzean iristen duen zenbatekoa, urtero kopuru berdinean egin izan balitz jada amortizatuta izango zen kopuruaren parekoa izan dadin.</p> <p>Hau da, kontua da erregulartasun handienaz maileguak indarrean dirauen bitartean jaso izan den maileguaren pareko erreserba-fondo bat osatzea, berau itzultzean, enpresaren Fondo Propioen zenbatekoa neurri berean hazteko.</p>
ENPRESAREN INFORMAZIO-BETEBEHARRA	<p>Urtero, onesten direnetik 15 eguneko epean, Urteko Kontuak entregatu behar ditu (Ekitaldiaren Memoria, Egoera-Balantzea, Emaitzen Kontua), dagokion Ikuskaritza-Txostenarekin batera, egin behar izango balu edo zenbatekoa 500.000 eurokoa baino handiagoa balitz eta, bestela, Merkataritza Erregistroko Kontuen Gordailua aurkeztu beharko da.</p> <p>Orobat, bilakaera ekonomiko-finantzarioari buruz eskatzen dioten informazio guztia.</p>
EBSk ABALATZEN DITUEN ERAGIKETEN BESTE EZAUGARRI BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> - Azterketako komisioa: %0,5, behin bakarrik ordaintzekoa. - Abalaren komisioa: Urtean %0,75 eragiketaren saldo biziaren gainean. - Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza: Urtean %0,5 eragiketaren saldo biziaren gainean. - Partaidetza sozialen harpidetza: EBSk ezarten duen zenbatekoa.

(1) Merkataritzako enpresek eskatu aurretik jada 2 urtez egon beharko dute osatuta eta jardunean.

(2) Merkataritzako sektorea: Ondokoetara bideratzen diren aktibo finkoetan egiten diren inbertsioak finantzatu ahal izango dira:

- Enpresaren hedapena sustatzera.
- Ekipamenduen-horniketa –bereziki teknologia aldetik aurreratutako direnak-
- Sare logistiko berrien ezarpena edo lehendik zeudenen garapena.

Bankuarekin duen zorrak enpresari ekartzen dion mendekotasuna murrizteko asmoarekin, Eusko Jaurlaritzak, BBK-k, Kutxak, Vital Kutxak, Banco Guipuzcoanok, Euskadiko Kutxak, Bankoak eta Enisak **LUZARO** finantza-erakundea eratu zuten, partaidetzako maileguak emanaz ETEen inbertsioak finantzatzeko.

Eta hori guztia **oso baldintza onuragarrietan.**

ZER DIRA LUZARO PARTAIDETZAKO MAILEGUAK?

Oso **epe luzerako** maileguak dira, **gabealdiaren epea** ere **luzea**, **interes-tasa erakargarria eskaintzen** dute, **galdagarritasuna** gainerako hartzekodunen **mende** utziz (akziodunak izan ezik).

ZEIN BALDINTZA BETE BEHAR DITU ENPRESA ESKAERAGILEAK?

ETE izatea:

Enpresa Txikitzat eta Ertaintzat hartuko dira Europar Batasunean indarrean dagoen arautegiaren arabera horrela kontsideratzen direnak.


Fondo Propioen zenbatekoa, gutxienez, **eskatzan duten maileguaren baliokidea izatea.**

NON ESKURATU ARGIBIDEAK?

LUZAROn eta **bazkide** diren Finantza-**Entitateetako** Enpresa-Bulego guztietan.

NON EGITEN DA IZAPIDEA?

Bazkide diren Finantza-Entitateetan, horiek kudeatzen baitute mailegua.





LUZARO

PARTAIDETZAKO MAILEGUAK



LUZARO
Avda. de la Libertad 10, 7º
20004 DONOSTIA - SAN SEBASTIAN
Tel.: 943 420 108 ■ Fax: 943 427 698
luzaro@luzaro.es
www.luzaro.es